

GARAPENERAKO LANKIDETZA ARLOKO UNIBERTSITATEEN JOKABIDE-KODEA

Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitateen Batzordeak (CEURI) 2006ko ekainaren 23an onartua.

UPV/EHUren atxikimendua Gobernu Kontseiluaren 2007ko otsailaren 8ko bileran onartua.

ATARIKOA

Azken urteetan Unibertsitateek garapenerako lankidetzan gero eta protagonismo handiagoa hartu dute eta unibertsitate-komunitateko sektoreen arteko solidaritatea areagotzeko hamaika jarduera abiarazi dituzte, hainbat herrialdetako unibertsitate, erakunde eta gizarte-kolektiboekin.

Hori guztia, azkenaldian nazioarteko zeregin solidarioetan ari diren gizarte eragileen mota eta kopurua areagotzearekin batera gertatu da; betiere, munduan berdintasun handiagoa eta giza garapen jasangarria sustatzeko asmoaz. Zeregin horretan ari ziren gizarte erakunde espezializatu gutxi batzuk (GGKE izena hartu dutenak) izatetik, testuinguru berri batera pasatu gara, zeinean GGKE horien kopurua nabarmen areagotzeaz gain, hainbat herrialde eta alorretan garapenerako programak eta proiektuak abiarazi dituzten hamaika gizarte kolektibo eta erakunde gehitu baitira.

Horrek guztiak jardueren egundoko dibertsifikazioa ekarri du lankidetzaren esparruan, lan-metodoetan, bai eta proiektu eta programen helburu espezifikoetan ere. Beraz, ez da harritzekoa garapenerako lankidetzaren ulerkeran hainbat kontraesan eta arazo sortu izana, bai zeregin horretan ibilbide luzea egina duten erakundeetan (GGKEengan), eta bai horretan berriagoak direnetan ere.

Horren guztiaren ondorioz, garapenerako lankidetzaren izaera solidarioaren mesedetan eta berdintasunaren, giza garapenaren eta jasangarritasunaren alde egiteko asmoz, gero eta premiazkoagoa bilakatu da garapenerako lankidetzaren bideratuko duten irizpide argiak zehaztea. Irizpideok, lankidetzaren izaera solidarioarekin edo aipatutako helburuekin bateraezinak diren praktikak ohartaraziko dituzte.

Hortaz, hainbat gizarte-erakundek eta -organizaziok euren lana bideratzeko helburuaz, zenbait baliabide bereganatu dituzte: jokabide-kodeak, erantzukizun sozialeko eta jardunbide ego-kien gidak, gardentasun-gidak eta abar. GGKEek 1997an Garapenerako GKEen Jokabide-kodea onartu zuten. Geroztik, berau izan da erakunde horiek burutzen duten lana etikaren ikuspuntutik epaitzeko eta balioesteko oinarritzko erreferentzia.

Unibertsitateen nazioarteko lankidetzaren ekintzek hartu duten handitasunak Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren esparru espezifikoaren xehetasun handiagoz mugatzeko beharra mahai-gaineratu du. Horren helburua, Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren helburuen eta lan-metodoen izaera solidarioa bermatzea da, bai eta haren azken helburua lanki-

detza gauzatzen deneko herrialdearen garapena dela azpimarratzea ere.

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren Estrategia (ESCUDE) lantzen hasi zenetik, 1999tik, Espainiako unibertsitateen eztabaida guztietan agerian geratu izan da ezinegon hori; eta unibertsitateen lan solidarioa sendotzeko eta legitimatzeko berebiziko garrantzia duela onartu egin da.

Aurreko guztia kontuan hartuta, CEURI-CRUEra atxikitako Garapenerako Lankidetzarako Batzordearen bidez, Garapenerako Lankidetzaren alorreko Unibertsitateen jokabide-kodea egiteko prozesua abiaraztea erabaki zuten Espainiako unibertsitateek 2005eko martxoan Castellón egindako batzarrean.

Jokabide-kodeak, 6 atal eta 31 artikulua dituenak, CRUE osatzen duten Unibertsitateen borondatea adierazten du, Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren jokabide-kodean ezartzen diren jarraibideetara egokitzeko borondatea alegia.

Edonola ere, Unibertsitate bakoitzean dagokion gobernu-organismoek berretsi beharko dute jokabide-kodea. Eta atxikitze hori, unibertsitate horren konpromiso solidarioaren, eta garapenerako lankidetzaren jarduerak kodean agertzen diren prozedura eta irizpide etikoetara moldatzeko borondatearen adierazgarri izango da.



LEHEN ATALA:

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren printzipioak eta helburuak

1. Artikulua

Unibertsitateak nazioarteko garapenerako lankidetzan parte hartzeak ondoko gogoeta du oinarrian: garapenerako nazioarteko lankidetzaren borondate kolektibotik sortutako aurrerapen-prozesua da, berekin aldaketa soziala, ekonomikoa, politikoa, kulturala, teknologikoa eta abar dakartzana; eta halaber, antolaketa partehartzailea eta kolektibitateko kideen boterearen erabilera demokratikoa eskatzen duena.

2. Artikulua

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren iritziz, pobrezia gizakiak era duinean bizi eta garatzeko beharrezko dituen funtsezko elementuen gabezia egoera da; eta lankidetzaren lehentasuneko helburuetako bat pobrezia desagerraraztea da.

3. Artikulua

Ikuspegi horretatik giza garapen jasangarria ondokoa da: pertsonen gaitasun guztiak garatzeko aukera eskainiko duen bitzita duinago baterako aukera gehiago eta hobeagoak eskaintzen dituen garapena, eta aldi berean etorkizuneko belaunaldientzako baliabide naturalak eta ondare kulturala gordeko dituen.

Gizadiak etorkizuneko erronkei aurre egingo badie, behar handiak dituzten herrien potentziala baliatu beharko du, zeina gaur bizi duten egoeraren eskasiak mugatzen duen.

4. Artikulua

Hezkuntza eta, horren barruan, goi-mailako hezkuntza, pertsonen eta gizartearen aukerak eta askatasunak zabaltzeko prozesuaren oinarritzko osagaia da. Ondorioz, unibertsitate-sistemak indartzeak eta unibertsitate-ikasketetarako sarbidea sustatzeak Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren berezko helburua da.

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren helburua da halaber, pobrezia errotik kentzeko eta garapena bultzatzeko prozesuekin lotutako zailtasunak eta kontraesanak konpontzeko lankidetzan aritzea, helburu horiek lortzeko egokiak diren ikerketa esparruetako aurrerapausoak sustatuz.

5. Artikulua

Genero-berdintasuna eta emakumeen gaitasunak eta autonomia indartzea berezkoak zaizkio giza garapenari, eta era berean, garapenaren helburu globala lortzeko baldintza beharrezkoak dira. Beraz, Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren oinarritzko erreferentziak dira.

6. Artikulua

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak halaber, ondoko ideia du bere oinarrian: ingurumenaren jasangarritasuna eta etorkizuneko belaunaldien eskubideak garapena sustatu nahi duten proiektuetan ezinbestekoak dira.

7. Artikulua

Bakea, demokrazia eta giza eskubideen errespetua giza garapen jasangarriaren aldeko edozein prozesutan funtsezko oinarriak dira. Beraz, Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren berezko helburuak dira.

Unibertsitateek garapenerako lankidetzaren politiken jabetze-, lerrokatze- eta bateratze-printzipioak ontzat hartzen dituzte erabat. Horien arabera, garapen prozesuaren onuradunek haien erakunde eta ekimenaren bidez eta lankidetzak dakartzan baliabide eta ekintzen laguntza baliatuz ezarri eta bideratu behar dituzte proiektu horiek.



BIGARREN ATALA:

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzaren izaera

8. Artikulua

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak Unibertsitatea nazioarteko bilakatzen edota unibertsitateen arteko nazioarteko lankidetzak lortzen bideratutako jardueretatik bereizten da; eta bere izaeraren oinarrian solidaritate balioak dira bereizgarriak.

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzan ari diren pertsonak giza eta akademia mailan aberastu egiten dira, bai eta lankidetzak eskaintzen duten unibertsitateak ere. Jarduera horren ezagueriak, Unibertsitateko komunitatearen lankidetzak eskuzabala eta konpromiso solidarioa dira.

9. Artikulua

Aurretik esandakoari jarraiki, Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak unibertsitateko komunitateak behar bereziak dituzten herrialdeen gizarte eraldaketara bideratutako jarduera multzoa da; jarduera horiek bakearen, berdintasunaren, giza garapeneren eta ingurumenaren jasagarritasunaren alde egin nahi dute, eta eraldaketa horretan erakundearen indartzea eta sendotze akademikoak berebiziko garrantzia dute.

10. Artikulua

Unibertsitateen eta beste erakunde zein gizarte eragileen garapenerako lankidetzak, nazioarteko harremanen testuinguruan dagoen jarduera da; bai eta garapen prozesuak baldintzatzen dituzten politika globalekin estuki lotua egon ere, horiengana eragina izan nahi duen. Horrek guztiak, epe luzeko helburuen eta gauzatzen diren ekintza zehatzen arteko koherentzia orokorra eskatzen du, bai eta bilatzen diren helburuen eta erabilaketa baliabideen artekoa ere.

11. Artikulua

Garapenerako lankidetzaren esparruan unibertsitateak egiten duen lana, berezkoak zaizkion jarduera-esparrukoak dira, hots,

irakaskuntza eta ikerketaren eremukoak. Bi horiek ezinbestekoak dira ikasleen prestakuntza integrala lortzeko eta mundumailako giza garapen jasangarria lortzea oztopatzen dituzten arazoak hobeto ulertzeko.

Unibertsitatearen lehentasunezko lan-esparruak ondokoak dira: unibertsitate sistemak indartzea (ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia, azpiegiturak, ekipoak eta gainerako baliabideak eskaintzea eta abar); garapen-programei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea (goi-mailako hezkuntzarekin lotutakoak eta unibertsitatean lortzen diren gaitasun zientifiko eta kritikoen balio erantsia eskaintzen duteneko esparruekin lotutakoak), bai eta unibertsitateko kideak sentsibilizatzea ere.

12. Artikulua

Garapenerako lankidetzaren Unibertsitatearen gizarte-konpromisoaren oinarritzeko zati bat da, eta beraz, ezin da ulertu akademiaren kanpoko jarduerak edota banakako konpromisoa bailitzan, aldiz, unibertsitateari berezkoak zaizkion jarduerak multzoaren barrukoa dela ulertu behar da.

Hortaz, Unibertsitatea bera zeregin horrekin konprometitu behar da, giza zein finantza-baliabideak eta baliabide teknikoak eskainiz. Halaber, laguntza hori ez zaie kolektibo sentsibilizatuenei bakarrik zuzendu behar, ezta banakoen aukera moral gisa ulertu behar ere, unibertsitatearen berezko jardueratik edo jarduerak akademikotik kanpo balego bezala.

13. Artikulua

Unibertsitateek Garapenerako Unibertsitate-lankidetzako jardueren identitatea eta garrantzia azpimarratu beharko dute: unibertsitatearen lanaren berezko helburua dela estatutuaren adieraziz, plan estrategikoetan sartuz, unibertsitatearen kudeaketa- eta sustapen-organoak sortuz, eta lankidetzaren gauzatu ahal izateko tresnak eta aurrekontuetako partidak emanez.



HIRUGARREN ATALA:

Unibertsitateko komunitatearen inplikazioa eta parte-hartzea

14. Artikulua

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak unibertsitateko komunitate osoaren ahalik eta inplikazio handiena izan behar du. Zentzu horretan, unibertsitateko sektore guztiei (ikasleak, PII eta AZP) Unibertsitatearen garapenerako lankidetzaren estrategiaren parte diren jardueretan aritzeko deialdia egingo zaie, eta jarduerok ezingo dituzte komunitate horretako kolektibo jakinek berezko egin.

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzan unibertsitateko komunitateko sektore berriak barneratzeak sendotu eta legitimatu egiten du lankidetzaren hori, bai eta unibertsitateko egituren ohiko jarduerara bezala ezagutarazi ere.

15. Artikulua

Unibertsitateko komunitateetako kideek borondatez eta irabazi-asmorik gabe hartu behar dute parte Garapenerako Unibertsitate-lankidetzan; hala ere, lankidetzak ezin die horretan ari direnei kalte ekonomikorik ekarri.

16. Artikulua

Unibertsitateko komunitatea garapenerako lankidetzan aritzea, borondatezkoa bada ere, unibertsitateko komunitateko kideen berezko jardueraren parte gisa onartu beharko da, Unibertsitateak gizarteari egiten dion ekarpena den neurrian. Lankidetzaren horrek ezin die kalte akademikorik eragin horretan ari direnei.

17. Artikulua

Hori gauzatu ahal izateko, irakasleek eta ikertzaileek garapenerako lankidetzaren esparruko jarduerak akademikoki aintzatesateko beharrezkoak diren formulak aztertuko dituzte Unibertsitateek, esaterako: jarduera esparru horietara zuzendu-

tako ikerketa-ildoak sustatzea; irakasgaiak eta curriculum-ildoak ezartzearen alde egitea; ahal den neurrian garapenerako lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko atzerrira joateko aukera eskainiko duten prozedura egokiak ezartzea; langile horien artean jarduera horiek arruntak bilakatu daitezela sustatzea; eta Unibertsitateetako CV eremuan Unibertsitate esparruan gauzatutako Garapenerako lankidetzaren jarduerak jasotzeko atal bat sortzeko aukera aztertzea.

Era berean, Unibertsitateek garapenerako lankidetzaren proiektu eta jardueretan parte hartzea balioesteko mekanismoak bultzatu ahal izango dituzte, bai eta haien kalitatea suspertu ere, irakaskuntzako, ikerketako edota erakunde-kudeaketako merezimenduak balioesteko erabiltzen diren adierazle eta prozeduren antzekoak erabiliz.

18. Artikulua

Helburu horrekin, administrazio eta zerbitzuetako langileak garapenerako lankidetzaren jardueretan aritzeko bideak erraztu ditzakete Unibertsitateek. Horretan aritzeak ez die lan-eskubi-deen murrizketarik ekarriko; eta aplikagarria zaion arautegiari jarraiki, atzerrira joateko aukera eskainiko dizkieten formulak ezarriko dira, langile horiek lantzen ari diren lankidetzaren proiektu eta –programetan haien laguntza edota aholkularitza teknikoa beharrezkoa den kasuetan.

19. Artikulua

Ikasleei dagokienez, garapenerako lankidetzaren jarduerak sustatzeko ondoko neurriak hartu beharko dituzte Unibertsitateek besteak beste: unibertsitateetako GGKEen sorrera sustatzea, esparru horretako borondatezko lana eta elkarrekin sorrera bultzatzea, eta beste hainbat jarduerarekin egiten den bezala, garapenerako lankidetzaren kredituekin behar bezala balioestea.

20. Artikulua

Erakundeen berezko eta ezinbesteko ekarpenaz gain, garapenerako lankidetzaren jarduerari laguntza emateko Unibertsitateek bere komunitateko kideen finantza-konpromisoa bideratu ahal izango dute. Hortaz, jarduera horiei era solidarioan laguntzeko formulak erabiliko dituzte, esaterako, % 0,7-an oinarritutakoak edota bestelako borondatezko ekarpen ekonomikoko formulak.



LAUGARREN ATALA:

Unibertsitateen eta beste herrialdeetako erakundeen arteko harremana

21. Artikulua

Garapenerako lankidetzak, bi aldeak elkartrukean aritzeko eta elkar aberasteko era gisa ulertu behar da, inposizioak eta jarraera paternalistak alde batera utziz. Ikuspegi horretatik, garapenerako lankidetzari dagokionean unibertsitatearen abiaburua beste aldeekiko errespetua izango da, bai eta aldeen borondate askearekin bat egingo duten lan-konpromisoak bilatzea ere.

22. Artikulua

Beste Unibertsitate eta erakundeekin ezarriko diren lankidetzahitzarmenek, parte-hartze demokratikoa eta gardentasuna izango dituzte oinarrizko irizpide; halaber, helburuak eta jarduerak-jarraibideak ezartzerakoan tartean diren sektoreen ahalik eta parte-hartze zabalena lortzea bilatuko da.

23. Artikulua

Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak egindako jardueren egonkortasuna eta jasangarritasuna izango ditu oinarrizko irizpide gisa. Horretarako unibertsitateek beste alderdiekin lankidetzalotura trinko eta egonkorrak sortu beharko dituzte, jarduerak sakabanatzea edota horiek noizbehinkakoak eta bakanak izatea ekidinez.

24. Artikulua

Unibertsitateek, beste parteekin adostuta, martxan jarri diren proiektuak eta programak balioesteko eta kudeatzeko tresna komunak ezarriko dituzte; aldi berean, egindakoaren edota sor litezkeen behar berriei egokituko zaizkien ekintza eta helburuen inguruko hausnarketa elkarrekin egiteko bidea ezarriko dute.



BOSGARREN ATALA:

Unibertsitateen eta lankidetzako gizarte-sarearen arteko harremana

25. Artikulua

Munduaren jasangarritasunean eta giza garapenaren aurrerakuntzan laguntza eskaintzeko gai den konpromiso solidarioaren alde erakundeek eta gizarte-organizazioek egiten duten esfortzu globalaren barruan dago Garapenerako Unibertsitate-lankidetzak.

Ikuspegi horretatik, Unibertsitateek gainerako gizarteko lankidetzak-eragileekin elkarriketa etengabea eta esfortzuak koordinatzeko mekanismoak ezartzearen alde lan egin behar dute. Lankidetzak era osagarrian ulertu behar da, ez lehiakorrean, eta beraz, elkarren laguntza eta aldean esfortzuak bateratzea da bilatu beharrekoa.

26. Artikulua

Unibertsitate-erakundearen ezaugarri bereziek garapenerako lankidetzak bultzatzeko giza baliabide eta baliabide tekniko ugari izateko aukera ematen diote. Horregatik, unibertsitateek bere ezagutza eta gaitasunak gainerako gizarte-eragileek bultzatutako proiektu eta programen beharren eta lankidetzak estrategia orokorren zerbitzura jartzeko formulak bilatu beharko dituzte.

27. Artikulua

Unibertsitateko komunitatea nazioarteko solidaritatearen eta giza garapen jasangarriaren alde sentsibilizatzea, unibertsitateak beste gizarte-eragile eta erakundeekin duen lankidetzak-esparru garrantzitsua da. Horrela, erakunde eta eragile horiek ekarritako esperientziekiko jarrera irekia izan beharko dute Unibertsitateek, haien presentzia ikastegietan sustatuko dute, haien jardueren aurkezpena eta azalpena ahalbidetuko dute eta abiarazten diren sentsibilizazio-programetan parte har dezaten ahalbidetuko dute.

28. Artikulua

Unibertsitateek gizarte-eragileei garapenerako lankidetzaren esparruko jardueretan laguntza emateak ezin du berekin ekarri unibertsitateek zeregin horretan duten inplikazioa murriztea. Aitzitik, gizarte-eragileei eskainitako laguntza hori unibertsitateek esparru horretan hartutako konpromisoekin batera gauzatu beharko da, erakundea den neurrian dagokion gizarte-erantzukizuna betez.



SEIGARREN ATALA:

Jokabide-kodea aplikatzea, zabaltzea eta betetzea

29. Artikulua

Unibertsitate bakoitza, bere Gobernu-organoen bidez, jokabide-kode honi atxiki daskioke, eta erabaki horren berri eman beharko dio CRUEri gainerako Unibertsitateek haren berri jakin dezaten.

30. Artikulua

Jokabide-kode hau sinatu ostean, Unibertsitate bakoitzak kode hori bere kideen artean zabaltu egingo du beharrezkoak eta nahikoak diren bideak erabiliz, berau ezagutarazteko eta garapenerako unibertsitate-lankidetzan kodeak duen eragina eztabaidatzeko. Halaber, kodearen aplikazioari jarraipena egingo dion organo bat izendatuko du unibertsitate bakoitzak.

31. Artikulua

Unibertsitateak izendatuko duen barne organo batek balioetsiko du jokabide-kodea betetzen den. Organo horren irizpena independentea eta publikoa izango da eta unibertsitateak berak hala eskatuta, kanpoko adituek edo aitortutako ospea duten kalitate-agentziek egiaztatu egingo dute.